

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a / 529. zenbakia



**Maria Jesus**  
**Ugalde**

**Bergarako sopranoak bakarkako kontzertua egingo du bihar, zapatua,  
San Pedro parrokian, Aitor Olea organo jotzailearekin batera**

**EHNA: LEHEN AGIRIAK BANATUKO DITUZTE BIHAR/5 • GIMNASIA: ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA, BIHAR/10**



## Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa 1  
20870 ELGOIBAR

Gipuzkoa

Tel.: 943 74 82 64

Faxa: 943 74 41 53

ingenieria@fmh.es

www.fmh.es

AENOR

**ER**

Enpresa Erregistratua

ER-0633/1/98

cesi aquitaine  
poitou-charentes



ES-0633-1998



Euskadi

2003-2004 IKASTURTEA

# TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA



## BILERA INFORMATIBOA:

Otsailaren 19an, 18:30ean, prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko:

- Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioen bisita.
- Bilera informatiboa.

- Enpresarekin elkarlanean garatutako lanbide-proiektua.
- Lan-kontratua prestakuntzaren lehen egunetik.
- Emaidza erakargarriak: gehiengoa lanean, %40 zuzendaritzako ardurekin.

**Maiatzaren 23ra arte MATRIKULA EPEA ZABALIK**

*Eraman plazerra zure etxera*

**gelatzu s.l.**  
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

## ATREBENTZIAEZPADA/ San Valentín ospatzen dozu? Zela? Zeozer berezixa egitten dozu?



**MARIA EUGENIA IÑARRA**  
27 urte



**CARMELO CASELLES**  
62 urte



**JAVIER CABALLERO**  
30 urte



**DANIEL GARCÍA**  
17 urte



**NURIA MARISCAL**  
31 urte



**MERTXE LAZKANO**  
67 urte

Ez, nik ez dot San Valentín ospatzen. Inoiz ospatu izan dot, baiña egixa esan bihar badot, oso gutxitan. San Valentín ez da inportantzia haundegixa emoten dotsaten egun bat.

Bai, ospatzen dot; urteren ospatzen huts egin dogu, baiña normalian bai. Afaltzera juten naiz andriakin, eta erregalotxoren bat be egitten dotsat. Harek neri baiña gehixago.

Ez dot San Valentín ospatzen eta, gaiñera, ez dot behin be ospatu egun hori. Ez jat gustatzen. Izan be, San Valentín eta holako ospakizunak ez doiaz nere izakeriakin.

Ez dot San Valentín ospatzen. Pentsatzen jat dala egun bat jentia dirua gastatzeko. Egund hori da modu bat dirua gastatzeko; kontsumismoa bultzatzeko, azken baten.

Ez dot ospatzen. Neretako ez da egun garrantzitsu bat, egun komertziala besterik ez da, dirua gastatzeko beste egun bat. Maittasuna ospatzeko beste egun asko darella pentsatzen dot.

Orain alargunduta nago, eta ez dot ospatzen. Dana dala, lehenago ospatzen giñuan San Valentín eguna. Erregalotxoren bat edo egitten giñuan, deitailletxoren bat izaten giñuan.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK LOREAK UREZTATZEKO MODUAK** Irakurle batek dio etxeko balkoian ditugun loreak urezatzeko orduan kontu pixka batekin ibiltzea ez litzatekeela batere gaizki egongo. Askotan ikusi izan ditugu balkoiak tantaka, loreak urezatu berri direnean. Irakurleak ulertzen du loreek ura behar dutela, baina arratsaldean kalean jendea dabilenean egin ordez, iluntze aldera ere egin daitekeela dio. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

### Kanposantuko kapera

Kapera zaharberritzeko proiektua idaztea esleitu berri du Udaleko Gobernu batzordeak.

### Bergara-Berio, zapatuan

Bergarak Berio taldea izango du bisitari Agorrosin. Donostiarrak hirugarren daude sailkapenean.

### Maria Jesus Ugalde

Bergarako sopranoak emanaldia egingo du zapatuan, Aitor Olea organo jotzailearekin batera.

## ASTEKODATUA

# 98

### BAZKIDE EGIN ZITUEN IAZ SAN JOXEPEK

San Joxepe erretiratuen elkar-teak 98 bazkide egin zituen joan den urtean. Bazkide kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Gaur egun, 1.646 bazkide daude elkartean.

## BESTEKEESANA

**“Nire filosofia da eper basatien ingeniari-tza genetikoa lortzea, ahalik eta kontrol handienarekin, granjetan erreplikatzeko. Duda barik, hazteko modu honek espezie-aren iraupena ahalbidetzen du aldaketa genetikorik gabe. Eta aldi berean, basoak aberastu egiten dira. Europar eper gorria erabat galduta dago, baina Espainiako basoetan txitek jaiotzen jarraitzen dute. Gainera, txita horiek eper birpopulatuaren oinordeko izan edo ez, basati direla esan daiteke. Etorkizuna gure eskuetan dago, kontuan izanda, gainera, animalia honen ehizak atzeritar ugari ekartzen duela, diru asko gastatzen duten atzeritarrek: batez beste, 6.000 euro gastatzen dira hiru eguneko ehizaldian.**

**PATXI GARMENDIA / Eper gorri hazlea 'El Mundo' / 03-01-26**

## BERAIEKDIÑO / Andres Osa "Sakona"



### Salaketa bi

**P**olitika alorrean egoera aski gordina dagoenez beste esparru batera alde egitea egokiagoa dela iruditu zaigu. Gaurkoan, pilota eta idi probak dira lerro hauek beteko dituzten gaiak.

Pilota aipatzen dugunean arazo puntual bat salatzeraz geroz. Bi-bitako txapelketa honetan eta aurretik ikusi duguna oso tristea da. Gehiegi luzatu gabe, Goñi II.ari eskaini nahi genizkioke, labur, bederen, lerro batzuk. Amurrion oraintsu, eta ia leku gehienetan antzeratsua, eman zigun ikuskizun negargarria irakurleak gogoan izango du. Goñik ridikulo demasa egin zuen eta fintasunez ongi aritu zen Elkororen ahalegina eta gogoa zapuztu. Aulkiak txikitu, atea kolpatu. Pilotaria ordez ostikalaria deitu behar zaio.

Noiz arte horrela? Nor da erruduna? Aurrena pilotazalea; Goñik egiten dituen aldrebeskeriak, lelokeriak, astakeriak

eta lotsagabekeriak txalotzeagatik. Segidan kazetariak; aldrebeskeri guztiak justifikatzeagatik edo behar adina ez salatzeagatik. Hauetako batzuen jarrera ulertezina da. Ondoren epesa, diruari bakarrik begiratzen diolako. Azkena Goñi bera da. Halere

erru gutxien berea da, ama naturak horrelaxe egin baitu. Noiz arte ikusi behar dugu ikusi behar ez genukeena?

Bigarren gaia: Zaldi eta idi probatan dabilen dopajea. Urte batzuk badira, gaitz hori kontrolatu

eta sendatu nahirik neurri batzuk hartu zirela. Neurriak hartu bai baina jarraipen serioerik egiten da?

Eskrupulo gabeko probalariak beti izan dira eta orain ere hor dabilta. Gutxiengoak dira zorionez. Hala eta guztiz ere, zigorrak gogortzen ez diren bitartean eta ematen diren positiboak norenak diren kanporatzen ez den bitartean zerrikeriak hortxe jarraituko du.

**“Goñik ridikuloa egin zuen eta fintasunez ongi aritutako Elkororen ahalegina eta gogoa zapuztu”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrariaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elempuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

**Goiena**  
Kommunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala




Elgetako  
Udala

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

# Euskara Hitzarmenaren lehen urteko balantzea


Euskara Hitzarmenaren balantzea egin zuten Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi Mari Karmen Garmendiak, udal ordezkariak eta Jarduneko kideek 1993ko otsailean. Guztiak bat etorri ziren euskararen erabilera bultzatzeko akordioaren garrantzia azpimarratzerakoan.



## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Zalapartara"

Mugimendu azkar eta bortitza. — Oillua eskutan artu giñuanian demaseko zalapartarak jota zittuan.



## HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 9 **-1°C**

MAXIMOA Zapatua, 8 **16°C**

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) **26,3 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	8°C	3°C	19,8 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 6	10°C	4°C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 7	15°C	2°C	— l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 8	16°C	0°C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 9	8°C	-1°C	4,8 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 10	12°C	6°C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 11	11°C	4°C	1,1 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## ASTEKO FILMAK

### 'THE RING (LA SEÑAL)'

ZUZENDARIA: GORE VERBINSKI. AKTOREAK: NAOMI WATTS, MARTIN HENDERSON.

**HARIA.** Bideo zinta misteriotsu bat ikusten zuten pertsonak hilda agertzen ziren. Kasua ikertzen dabilen kazetaria mundu ezezaguneko mamuekin aurkituko da.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

### 'EL GRAN DICTADOR'

ZUZENDARIA: CHARLES CHAPLIN. AKTOREAK: CHARLES CHAPLIN, JACK OAKIE, PAULLETTE GODDARD.

**HARIA.** Denboraldi baten amnesia jeta egon ondoren, bizargin judu bat Tomaniara itzuliko da. Bere herrialdea diktadurapean dagoela ikusiko du. Hynkel diktadorea dago agintean eta mundua gobernatzeko itxaropena du. Chaplinen maisulana.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan 22:30ean eta domekan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

### 'LA CIÉNAGA'

ZUZENDARIA: LUCRECIA MARTEL. AKTOREAK: MERCEDES MORÁN, GRACIELA BORGES, MARTIN ADJEMIAN.

**HARIA.** Lucrecia Martel zuzendariak opera prima onenari zegoen kion saria jaso zuen Berlinen Jaialdian film honengatik. Argentinako ipar-mendebaleko La Ciénaga izeneko herrian girotuta Martelek Berlinen adierazi zuen gaurko gazte argentinarren ezinezona islatzen saiatu dela.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hilaren 20an, 20:00etan. Zinekluba.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**  
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 15**  
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 16**  
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 17**  
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 18**  
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 19**  
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 20**  
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

## OHARRAK

### JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOKKETA

Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, bi kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan bata eta Caja Rural de Navarran bestea.

### HITZALDI AK IPINTZA INSTITUTUAN

Batxilergoko ikasleendako eta haien gurasoendako Mondragon Unibertsitatearen gaineko hitzaldia izango da martitzenean, hilaren 18an, Ipintzako aretoan, 19:00etan. Eta eguenean, hilaren 20an, Miguel Altunako goi mailako zikloen gaineko hitzaldia izango da, ordu eta toki berean.

### MARIAREN LAGUNDIKO ZOKKETA

Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek ikasketa-bidaiarako eginiko zozketan 3.105 zenbakia izan da saritua. Begoña Martínez txartelaren jabeak Zumelagan bi lagunendako afaria irabazi du.

### BERTSO AFARIA BIHAR

Bihar, zapatua, bertso afaria egongo da Artatse elkartearen, 21:00etan. Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga izango dira bertan. Izenez matea (20 euro), Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan.

### IKASTAROAK KZGUNEAN

Irizar jauregiko lehenengo solairuan dagoen KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatuta dituzte. Argibideak, 943 76 73 24 telefono zenbakian.

## URBANOEN ORDUTEGIA

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarretik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**  
Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40  
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46  
Ertzaintza..... 943 76 53 40  
Osasun-etxea..... 943 76 24 40  
Asepeyo..... 943 76 16 43  
Pakea..... 943 76 13 49  
Anglozarko medikua..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23  
Odol emalleak..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**  
Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**  
Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32  
Igerilekuak..... 943 76 20 51  
Kultura etxea..... 943 77 91 58  
Liburutegia..... 943 77 91 62  
Kiroldegia..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**  
Epaitegia..... 943 76 14 92  
Erregistroa..... 943 76 13 15  
Jardun..... 943 76 36 61  
Idolaz..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71  
Postetxea..... 943 76 26 85  
Bedelkar..... 943 76 04 68  
Akulu AEK..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

## MEZAK

- |                         |                                |
|-------------------------|--------------------------------|
| <b>San Pedro</b>        | <b>Labegarieta</b>             |
| Domekak:                | Domekak: 11:00.                |
| 09:30, 12:30.           | <b>San Lorentzo</b>            |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00.               |
| 19:00.                  | <b>Angiozar</b>                |
| <b>Sierbak</b>          | Domekak: 11:30.                |
| Lanegunak: 19:15.       | <b>Moja Zaharrak</b>           |
| Zapatuak:               | Lanegunak: 09:00.              |
| 19:00.                  | Zapatuak: 11:00.               |
| Domekak:                | <b>Mizpirualde</b>             |
| 11:30, 13:00.           | Lanegunak: 11:45.              |
| <b>Osintxu</b>          | Zapatuak: 17:30.               |
| Domekak: 12:30.         | <b>Antzuola</b>                |
| Zapatuak: 19:00.        | Domekak:                       |
| <b>Elosu</b>            | 09:00, 11:30.                  |
| Domekak: 10:30.         | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| <b>Ubera</b>            | <b>Uzarraga</b>                |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 10:00.                |
| <b>San Juan</b>         | <b>Elgeta</b>                  |
| Domekak: 11:00.         | Lanegunak: 09:00.              |
| <b>Elorregi</b>         | Zapatuak: 19:30.               |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 12:00.                |

- URTE-MEZAK**  
**Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

# BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

**HIRIGINTZA/** Kaperaren atzeko aldean langileendako gela egokituko dute, baita errausketa gela ere; nahiz eta laberik, oraingoz, jarriko ez duten

# Kanposantuko kapera zaharberritzeko proiektua idaztea esleitu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

**Kanposantuko kapera zaharberritzeko asmoa aurrera doa: lanok egiteko proiektua nork idatziko duen erabaki berri du Gobernu batzordeak. Proiektua Endiagonal 375 SL enpresak idatziko du. Konponketak noiz egingo dituzten, dena dela, zehaztu barik dago.**

Bartzelonako Endiagonal 375 SL enpresa arduratuko da kanposantuko kapera zaharberritzeko proiektua idazteaz. Hala onartu du Gobernu batzordeak, eta esleipena 15.400 eurotan egin dute. Bestalde, hilabete du enpresak, eskatutako proiektua egin eta Bergaran Udalean aurkezteko.

Aspaldi du Udalak kapea zaharberritzeko asmoa; izan ere, kapera nahiko txarto dago. Zaharberritzeari dagokionez, kapera barruko aldetik eta kanpoko aldetik berrituko dute. Bestalde, kaperan egin beharreko beste bi kontu ere jaso beharko ditu proiektuak: alde batetik, kanposantuko langileendako gela; eta, bestetik, errausketa gela.

## ORAINGOZ, ERRAUSKETA LABERIK EZ

Langileendako gelari eta errausketa gelari dagokionez, biak kaperaren atzeko aldean egiteko asmoa dago; kaperaren ostean hutsik dagoen gunean.

Langileendako gelari dagokionez, aldagela eta bulego funtzioa izango ditu. Errausketa gelaren kasuan, proiektuan jaso egingo dute; hala eta guztiz ere, oraingoz errausketa laberik ez dutela jarriko aurreratu du Jose Antonio Etxeberria Hirigintza batzordeko buruak: "Proiektuan jaso eta lanak egiten direnean gela prest utzi nahi dugu. Dena



Kapera kanpoko zein barruko aldetik konpontzeko asmoa du Udalak. Estilo neoklasikoa du eta balio artistiko garrantzitsua.

dela, oraingoz ez dugu errausketa laberik jarriko".

Kapera txarto dagoen arren, Aste Santuan eta Domu Santu Egunean jende ugari erabiltzen du otoitz egiteko, kanposantuko langileen esanetan. Konpondu ondoren, gehiago erabiltzea ere oso posible dela gehitu dute, egun zehatz horietatik kanpo, hain zuzen ere.

## KANPOSANTUA ETA KAPERA 1855. URTEKOAK

Ordura arte hildakoak elizan lurperatzeko ohitura bazegoen ere, ilustrazioarekin batera, eta mugimendu higienistaren ondorioz, ehorzkeko ohiturak aldatuz joan ziren: hildakoak elizan lurperatzeari utzi, eta horretarako bereziki prestatuta zeuden gunetan ehorzkeko ohitura hedatuz joan zen; hirigunetik kanpo eta ondo mugatutako gunetan, hain justu ere. Bilakaera hori dela-eta, XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera bitartean, hainbat kanposantu eraiki zituzten. Bergarakoaren kasuan, 1855ekoa da, sarrera nagusiko inskripzioan ikusten denez, eta kapera bera ere garai berekoa da.

## Kapera neoklasikoa eta balio artistiko handikoa

Begarako kanposantua 1855ekoa da, eta estiloari dagokionez, neoklasikoa, kapera bezala, Xabier Aranburu Udal Museologoak azaldu duenez. Gehitu duenez, kanposantuaren sarrera nagusiak eta sarreraren bi alboetan dauden nitxoek garrantzi artistiko handia dute. Baita hilerrian dauden bost edo sei mausoleok ere. Era berean, kaperaren balioa ere azpima-

rratu du: "Eraikin neoklasiko ona eta baliotsua da, kanpoko egitura eta formak ederrak dira, baina kaperari benetan balioa ematen dioten elementuak dira barruko aldean dituen lau zutabe klasikoak eta horiek sostengatzen duten puntu erdiko ganga. Estiloari dagokion ganga tipikoa da, eta, batez ere, horrek ematen dio balioa artistikoa kaperari".

Aranburuk argitu duenez, iaz Eusko Ikaskuntzak antolatutako kongresu baten, aipamen berezia jaso zuen Begarako kaperak: "Jose Angel Barrio Lozak, Deustuko katedraduna Artearen Historian, arkitektura neoklasikoaren gaineko hitzaldia egin zuen. Hitzaldian barrena, kapera eraikin neoklasiko garrantzitsua dela esan zuen".

## Lehen EHNAk bihar banatuko dituzte


MONIKA BELASTEGI

Astean heldu dira Udalbiltzaren bulegora. 350 agiri inguru dira eta bihar, zapatua, banatuko dituzte. Horretarako ekitaldi berezia prestatu dute Udalbiltzak Kruz Gallastegi kaleko 7an duen bulegoan. 12:00etan izango da, eta EHNA eskuratzeko eskaria egin duten 350 herritar horietako bakoitzak eskuratuko du agiria. Ekitaldia alaitzeko, trikitilariak, EHNAren gaineko bideoa eta luncha egongo dira.

Lehenengo txandan ailegatu diren agiriak dira horiek, eta

herritarrek jaso dute etxean jakinarazpena. Hurrengo txandetan heltzen diren agiriakin ere gauza bera egingo dute arduradunek, eta eskatzaileei zuzenean jakinaraziko diete, EHNAk heltzen direnean.

EHNA egiteko, hiru argazki, errolda agiria eta Euskadiko Kutxan (3035 0135 921350011892) 12 euro sartu ondoren ematen duten agiria eraman behar dira Udalbiltzako bulegora. Ordutegia honakoa da: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara.



Lehenengo txandan, 350 agiri banatuko dituzte; agiri gehiago heldu ahala, onuradunek etxean jasoko dute jakinarazpena.

MONIKA BELASTEGI



AITOR URIZAR

Hilaren 1ean erori zen Bonbulu etxearen zatia. Orduetik hona itxita izan du Urteaga kalea Udalak, segurtasuna bermatzeko.

**HIRIGINTZA/** Astelehenerako osoko bilkuran onartu zituzten Bonbulu botatzeko baldintzak

## Urteaga astelehenerako zabaldu nahi du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Astelehenerako eraikinak bota eta Urteaga kalea zabaltzeko nahia adierazi du Victoriano Gallastegi alkateak. Eraikinak botatzeko baldintzak asteleheneran onartu zituen udalbatzak, eta eraispin lanak Mariezkurrena Eraikuntzari esleitu dizkiote.

Eraikinak lehenbailehen botatzea komeni dela kontuan izanda, asteleheneran, ezohiko bilkura izan zen udaletxean. Han, eta alderdi guztien oniritziarekin, Bonbulu okindegi zaharreko eraikina eta haren parean dagoena botatzeko baldintzak onartu zituzten.

Horren guztiaren arabera, Udalak bere gain hartuko du eraikinak botatzeak dakarren gastua, eta eraikinen jabeek, Ezpeleta anai-

arrebek, Udalaren esku utziko dituzte eraikinak.

Okindegi zaharraren eraikinari Urteaga kaleko 22, 24 eta 26 zenbakiak dagozkio. Hura eraisteak 45.424 euroko gastua du. Okindegi pareko eraikina, berriz, 33. zenbakia da eta eraisteak 21.864 euroko gastua du. Denera, 67.000 euro inguru. Eraispin lanok Mariezkurrena Eraikuntzari esleitu dizkio Udalak.

*Jabeek Udalaren esku utzi dituzte bi eraikinak, eta eraisteak 67.000 euro inguruko gastua da*

### BALITEKE ASTELEHENERAN ZABALTZEA

Eguaztenenean erredakzioa ixteko unean Victoriano Gallastegi alkateak azaldu zuenez, Mariezkurrena enpresarekin zehaztu barik zegoen eraispin lanak noiz hasi behar zituzten; dena dela, Udalaren aldetik lehenbailehen izatea nahi zuten. Edozelan ere, eguen edo egubakoitzean hasiz gero, astelehenerako lanak amaituta egon zitezkeela ere adierazi zuen, eta horixe dela, hain justu, Udalaren nahia: asteleheneran errepidea irekitzea, alegia.

Joan den zapatuan, hilak 1, erabaki zuen Udalak errepidea ixtea, Bonbulu okindegi zaharraren barruko aldearen zati bat erori zenean. Harrietako batzuk errepidera erori ziren, eta joan-etorri handiko gunea dela kontuan izanda, itxi egin zuen Udalak, arriskua ekidin eta segurtasuna bermatzeko.

## LABUR

### Josu Cifuentes gaztetxoaren aldeko zozketa eta diru bilketa kanpaina aurrera doaz


Josu Cifuentesek 12 urte ditu, eta haren tratamenduan laguntzeko diru bilketa kanpaina hasi dute. Leuzemia du, eta Bartzelonara eraman behar dute hezur-muina transplantatzeko. Familiari laguntzeko asmoz, saskia atera dute Josu Cifuentesen izenean. Txartelak herriko dendetan daude salgai. Bestalde, bi kontu zehar baki ere ireki dituzte: Euskadiko Kutxan (3035 0009 16 009070156) eta Caja Rural de Navarran (3008 0169 55 0100016282).

### Goi zikloetako ikasleendako eta haien gurasoendako hitzaldiak Ipintza Institutuan

Batxilergoko ikasleendako eta haien gurasoendako Mondrago Unibertsitatearen gaineko hitzaldia izango da martitzenean, hilaren 18an, Ipintzako aretoan, 19:00etan. Horrez gain, eguenean, hilaren 20an, Miguel Altunako goi mailako zikloen gaineko hitzaldia izango da, ordu eta toki berean.

### Euskal Herrian Euskaraz taldeak elkarretaratzea deitu du epaitegi aurrean

Euskal Herrian Euskaraz taldeak elkarretaratzea egingo du bihar zapatua, 11:30ean, epaitegi aurrean, Ariznoa plazan. Elkarretaratzea ordu erdikoa izango da, eta epaitegietan euskararen erabilera bultzatzeko egiten diharduten kanpainaren barruan dago.



### Sahararren janaria, Astigarragan

Martitzen eguerdian, Saharara bidaltzeko janaria Erregetxo plazako eraikinetik atera eta Astigarragara eraman zuten, Belatzeta industrialdera. Bost tona inguru batu dituzte, eta guztia garraiatzeko kamioia hartu zuen errentan Udalak. Udaletik aurreratu dutenez, prentsaurrekoan emango dute batu den janariaren eta diruaren berri, baita herritarrei eskerrak ere.

# Herran

## ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

## SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53

vegasa





MONIKA BELASTEGI

Besteak beste, Jesus Mari Garitano, Maite Aristegi, Jose Luis Elkoro eta Mikel Eguren izan ziren plataformaren aurkezpenean.

## Mendekoste jaietako kartel lehiaketako oinarriak, kalean

MONIKA BELASTEGI

Udalak Mendekoste jaietako kartela aukeratzeko lehiaketako oinarriak kaleratu berri ditu. Helburua da jaietako egitarauaren azalerako irudia aukeratzeko. Epea martxoaren 28an bukatuko da.

Udaleko Jai batzordeak Mendekoste jaietako egitarauaren azalerako kartel lehiaketako oinarriak kaleratu ditu dagoeneko. Lehiaketan interesa duen edonork har dezake parte. Kartelak 61x46 cm izan beharko du, eta euskarri gogorrean aurkeztu beharko da.

Kolorea eta teknika libreak izango dira, baina kartelak derri gorrez testu hau izan beharko du: *Pentekoste Jaiak Bergaran, 2003*.

Lanak aurkezteko epea martxoaren 28ko ordu batean amaituko da, eta lanok kultura etxean aurkeztu beharko dira. Aurkezteko orduan, egilearen

nortasuna ezingo da agertu, eta kartelak atzeko aldean ezizena izan beharko du. Eta ezizena eta egilearen datuak gutun-azal itxi baten aurkeztu beharko dira.

Lehiaketaren irabazleak 600 euroko saria jasoko du. Saritutako kartela Bergarako Udalararen esku geratuko da, eta, saritutako lana ordenagailuz egina badago, euskarri digitala ere eman beharko du egileak.

### ZEZENKETAK IRAGARTZEKO KARTELA

Zezenkaleak taldeak ere Mendekoste jaietan egingo diren zezenketak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Gehienez hiru lan aurkez daitezke. Kartelaren gaia *Zezenak Bergaran* izango da eta estiloa eta teknika, libreak. Irabazleak 1.000 euro eta plaka jasoko ditu. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, maiatzaren 15etik 22ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 21:00etara.

**POLITIKA/** Abertzale eta ezkertiar definitu zuten euren burua aurkezpenean

## '...ta segi aurrera' herri plataforma aurkeztu dute

MONIKA BELASTEGI

Joan den zapatu eguerdian aurkeztu zuten '*...ta segi aurrera*' plataforma Munibe plazan. Herritar ugari batu zen ekitaldian, "Euskal herri librearen aldeko konpromisoa" hartu duten herritarrek, hain zuzen. Euren helburua honakoa da: "Gure herria" eraikitzea.

Joan den zapatuan aurkeztu zuten '*...ta segi aurrera*' herri plataforma Munibe plazan. Ekitaldian trikitaldian, bertsolariak, txalapartariak eta dantzariak izan ziren, eta hainbat herritar hurbildu zen plataformaren aurkezpena. Besteak beste, Maite Aristegi, Jose Luis Elkoro, Jesus Mari Garitano, Mila Elortza, Mikel Eguren, Ibai Redondo, Fernando Lasa, Mireia Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia eta Pello Garitano izan ziren ekitaldian.

Plataforman batu diren herritarrek abertzale eta ezkertiar definitzen dute euren burua, eta Euskal Herriak bizi duen egoerarekin kezkatuta daudela adierazi zuten Maite Aristegik irakurritako oharrean: "Lege arrotzen menpean, muga zatikatzaile artean eta debeku itogarrien itzalean bizitzera behartuta gaude", eta hori "ez da gure Euskal Herria. Gure Euskal Herria zazpi probintzietako gizon eta emakumeok osatzen dugu, herri euskalduna da gurea, bere buruaren jabe dena, elkertasunezko Europa bat sor-

tu nahi duena beste herri guztiekin eta beste mundu bat posible dela pentsatzen duen herria".

Hori horrela, plataforman bildu diren herritarrek nahi duten Euskal Herri librearen aldeko konpromisoa hartu dute eta herritar guztiei plataformarekin bat egitera dei egin diete; azken batean, "Bergaran ere baditugulako beharrak eta nahiak, eta Bergara eraikitzen badugu Euskal Herriaren zati bat ere eraikiko dugulako", Maite Aristegiren esanetan.

### HIRU ARDATZ NAGUSI

Euskal Herriaren eraikuntzan hiru ardatz nagusi aintzat hartu

*Telesforo Monzonen olerki ezagun batetik hartu du izena herri plataformak*

*Euskal Herri librearen aldeko konpromisoa hartu dute plataforman batutakoek*

behar direla adierazi zuten: "euskalaren ofizialtasuna Euskal Herri osoan lortzeko, hezkuntza sistema propioa izateko, eta Europako eraikuntzan herri moduan pate hartu ahal izateko, autodeterminazioa ezinbestekoa" dela adierazi zuten. Bestetik, "gatazka politikoari irtenbide demokratikoa emateko, bizi garen salbuespen egoera gaintu ahal izateko eta euskal presoak gure artean izateko, gaur egun dagoen baldintza demokratikoen gabezia jarrera desobedienteen bidez gaintu behar dugu". Azkenik, Euskal Herria ezkerreko ikuspegi batetik eraiki nahi dutela adierazi zuten. Horretarako, esparru ekonomiko eta sozio laboral propioaren alde egingo dute, gizarte desorekak baztertu, globalizazioaren aurka egin eta luraren baliabideak modu orekatuan erabili.

### TELESFORO MONZONEN HITZAK PLATAFORMARI IZENA EMATEKO

Plataformari eman dioten izenari dagokionez, '*...ta segi aurrera*', Bergararekin lotura zuzena duela azaldu zuten aurkezpenean. Izan ere, "Telesforo Monzonen olerki oso ezagun baten hitzak dira".


'...ta segi aurrera' plataforma hainbat euskal herritarrek eratu dute Gernika Deialdiaren baitan sortu da. Deialdi hori Gernikan aurkeztu zuten azaroaren 9an, eta oinarri haiek hartu, Bergara ekarri eta plataforma eratu dute.

## LABUR

### Bertso afaria egongo da bihar, zapatua, Artatsen, Amuriza eta Iturriagarekin

Azken urteotan egin izan duten moduan, bihar, zapatua, bertso afaria egongo da Artatse elkarteetan. Ekitaldia Artatse elkarteak antolatu du, eta izen handiko bi bertsolari hartuko dute parte, gai libreak: Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga bertsolariak, hain zuzen ere.

Bertso afaria 21:00etan izango da. Izena Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eman daiteke. Bertso afarirako txartela 20 euro kostatzen da.



### Kutxekin jarduteko ikastaroa KZGunean

Zure finantza entitatearekin lan egin I eta II izena du eta hilairen 17an eta 18an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Bi ataletan banatuta dago: lehenengoan, aurrezki kutxek eskaintzen dituzten oinarriko zerbitzuak azalduko dituzte; bigarrenean, etxebizitzaren aurrezki-kontu, fondo kontu, pentsio-plan eta hala-ko zerbitzuetan sakonduko dute. Plazak mugatuak dira.



## ZUHAITZAK SAN MARTIN PLAZAN

**A**urreko zapatuan, Zuhaitz Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, bertako zuhaitzen erakusketa izan zen ikusgai San Martin plazan. Hotz handia egiten zuen arren, herritar ugari joan zen plazara, eguerdi partean, batez ere. Erakusketara hurbildutakoek zuhaitzen ezaugarrien berri jasotzeko aukera izan zuten. Era berean, hainbat zuhaitz mota salgai jarri zituzten. Ikasleak ere Zuhaitz Eguneko protagonista izan genituen, Pol-Pol iturriaren inguruetan landatze sinbolikoa egin zen-eta, egun horretan ohikoa den moduan.




## SAN MARTIN ESKOLAKO EGUNA

**S**an Martin ikastetxeko ikasleek Eskolaren Eguna ospatu zuten joan den egubakoitzean. Goiz osoan barrena ekitaldiak izan zituzten. Esatera baterako, Haur Hezkuntzakoendako hainbat lantegi antolatu zituzten eta Lehen Hezkuntzako gaztetxoak, berriz, euskal jokoak egiten ibili ziren. Gero, txokolata-jana izan zen guztiendako.

## BERRIGARAKO ERREDAKZIOAN BISITARI

**S**an Martin ikastetxeko hirugarren mailako ikasle talde bat bisitari izan genuen aurreko egunean, hilaren 6an, BERRIGARAKO erredakzioan. Karmele eta Karmen irakasleen laguntzaz, 22 ikasle etorri ziren, eta aldizkaria zelan egiten den azaldu genien. Gure aldizkariaren irakurle finak direla erakutsi ziguten, eta kazetari sena ere azaldu zuten galderak egiterakoan. Alde egin aurretik argazkia atera genien. Klik!



Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

## CLINICA DENTAL BERGARA

HELBIDE BERRIA:  
**Bidekurutzeta 36, behea**

Tel.: 943 76 05 77

• Odontologia helduendako eta umeendako • Hartz-protesia • Estetika eta zuritzea  
• Inplanteak eta kirurgia • Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred

DESKONTU BEREZIAK  
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak



MINGAINARITIRAKA



**Aitor  
Imaz**

UDALTZAINA

Aitorrek 25 urte ditu, eta iraila ezker udaltzain lanetan dihardu Bergaran. Aurretik, jaioterrian, Zarautzen, ibili zen udaltzain, bi urtez. Itsasoa izugarri gustatzen zaio, eta, euria-rekin aspertuta, udako egun berotsuekin egiten du amets.

**Laneko gauzarik onena eta txarrena?**

Onena, jendeari laguntzean geratzen zaizun poztasuna; eta txarrena, askotan jendearen kezak jaso behar izatea.

**Bergararik zer atsegin duzu gehien? Eta gutxien?**

Gehien, herritarren arteko hurbiltasuna; gutxien, euria.

**Gidariei askotan errepikatzen diezun gauza bat?**

Zirkulazio araudia errespetatzeko, zebrabideak eta semaforoak askotan ez dituzte-eta behar den moduan errespetatzen.

**Zuri isunak jasotzea tokatu zaizu?**

Orain arte ez, behintzat...

**Nori jarriko zenioke isuna gustura?**

Politikoei.

**Txikitan, zer izan nahi zenuen?**

Albaitari, animaliak gustuko izan ditudalako beti.

**Besteengan gehien estimatzen duzuna?**

Egiazaletasuna, faltsukeriatan ez ibiltzea.

**Zure bertute eta akats bana?**

Ez dakit bertutea den, baina pazientzia handia daukat; akatsa, nahiko egoskorra naizela zerbait buruan sartuz gero.

**Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Momentuko gauzekin gozatzeari.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**

Azala, titularrak.

**Asteko egun bat? Urtaro bat?**

Zapatua, lagunekin egoteko aukera dudalako. Eta urtaroa, uda.

**Gaur San Valentín ospatzeko asmorik bai?**

Ez dut uste...

**Liburu bat/Film bat/Kantari bat?**

*No sin mi hija* (B. Mahmoody) / *Los lunes al sol* / Benito Lertxundi.

**Aste bukaerarako plan ideala?**

Lagunekin irten eta parrandaxoren bat egin.

**Sagardotegiren baten egon zara aurten?**

Joateko asmoa daukagu. Urtean bitan-edo joaten gara.

**Loterian milioi bat euro irabaziz gero?**

Etxe on bat erosiko nuke Zarautzen.

BERGARARRAKMUNDUAN

**NARTXI AZKARGORTA**

39 URTE / TITIRITEROA / SANT ESTEVE DE PALAUTORDERAN (KATALUNIA) BIZI DA

**“Txotxongiloekin lan egiteko aukera asko dago Katalunian, eta oso gustura dihardut”**

EDU MENDIBIL

**T**aun-Taun antzerki taldeko sortzaileetarikoa bat izan genuen Nartxi. Bederatzi urtez jardun zuen Taun-Taunen, 1996ko urtarrilean Kataluniara alde egin zuen arte, hain zuzen: “Euskal Herrian ezer berririk egiteko aukera ez nuela ikusi nuen; huts sentsazioa neukan. Dena errutina bihurtzen ari zen, eta etorkizuna nahiko zalan-zagarria zenez, Bergararik irte-tea erabaki nuen. Txotxongilo ikuskizunen sortzailea izatean, nire lanei irtenbidea emango liekeen ordezkarari baten beharra neukan, eta nire aldeko apustua egiteko prest zegoen ordezkarari bat hartu nuen. Hori dela eta, Kataluniara etortzea erabaki nuen. Lehenengo urtea Sant Antoni de Vilamajorren egin nuen; gero, sei urtez Santa Maria de Palautorderan bizi izan nintzen; eta iraila ezker, Sant Esteve de Palautorderan gaude, Bartzelonatik 50 kilometrora dagoen herri txiki baten, Montseny mendi hegalean, hain zuzen”.

Narxiren bikotekidea, Ester, titiritero beteranoa da baita ere. Noa izeneko alaba daukate, 3 urte eta erdi dauzka. Katalunian dagoenetik bost ikuskizun sortu ditu Nartxi. Horrez gainera, telebistarako eta bideo ekoizle etxe baterako lanak ere egiten ditu: “Orain, beste proiektu batekin dihardut. Orain dela bi urte estreinatu genuen, baina laster beste bertsio bat aurkeztuko dugu Gijongo Feten jaialdian: *Aventuras del capitán Patilla y su cuadrilla*. Kantauri itsasoko

*“Euskal Herrian ezer berririk egiteko aukera ez nuela ikusi nuen; huts sentsazioa neukan”*

atunketari baten gaineko istorioa da, eta epe laburrera Euskal Herrian antzeztu nahiko nuke”.

Narxiren esanetan, Katalunian Euskal Herrian baino tradizio handiagoa daukate txotxongiloekin: “Lan egiteko zirkuitu gehiago daude eta beste batzuen proiektuetan parte hartzeko aukera dago, txotxongiloak egiten edo produkzioko bestelako lanetan. Aste bukaerako ohiko emanaldietan ez ezik, txotxongiloek beste ekitaldi batzuetan ere hartu dute protagonismoa azken urteotan. Txotxongiloekin lan egiteko aukera asko dago. Hasieran kostatu egin

zitzaidan zirkuitu katalanetan nire burua ezagutzera ematea, eta gogor lan egin behar izan nuen. Baina profesio lankideek primeran hartu ninduten hasieratik, eta oso gustura dihardut”.

Esan bezala, herri txiki baten bizi dira: “Aste barruan oso herri lasaia da, baina aste bukaeretan jende dezente etortzen da, atsedeen hartzera, aire garbiaren bila. Bartzelona hiriko jendea etortzen da, batez ere”.

Kataluniako eta Euskal Herriko bizimoduaren artean diferentziak sumatzen ditu Nartxi: “Katalanek ez daukate horrenbesteko ohiturarik kalera irteteko, eta bizimodu soziala itxiagoa da Katalunian. Hemengo jendearen izaera ez dut oso gustuko. Katalanen fama zerbaitegatik izango da: askotan zaila da norbaitengandik ezer lortzea, zerbaiten truke ez bada. Horrek ez du esan nahi guztiak horrelakoak direnik. Orokorrean, nahiko kontserbadoreak dira katalanak, euren kultura asko maite dute eta, era berean, irekiak eta tolerantzak dira, kultura askotariko jende asko jasotzen dutelako”.

Aisialdian bizimodu lasaia egiten dutela diosku Nartxi: “Familiarekin eta lagunekin egoteko eta atsedeen hartzeko aprobetxatzen dut. Bergarara nahi baino gutxiago joaten naiz, distantzia luzea dago-eta haraino joateko. Baina, ahal dudan guztiefan, herrira joaten saiatzen gara. Familia eta Bergarako lagunak sumatzen ditut faltan, baita lagunarteko txikiteoa ere...”.



EDU MENDIBIL

**NEODEPILAZIOA: LASERRA ILEA KENTZEKO DENA, MEDIKUAREN KONTROLPEAN**

DepiClub-en ez dugu tratamendu magikoetan sinesten. Izan ere, ikerketa pertsonalizatu baten bitartez diagnostika dezakegu zure arazoa, hala, modurik egokienean tratatzeko. PROFESIONALITASUNEZ.



**LEHENENGO KONTSULTA DOAN**



Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

**HERRIKO ETXEA**

Eguneko menua+kafea: **6,95** euro  
Gaueko menua: **7,00** euro

Eta pintxoak **0,70** euro!

**Zatoz!**

Bidekurutzeta 23 BERGARA Tel. 943 76 55 23

GIMNASIA

# Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketa, bihar, Labegaraletan

Ariznoako benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetako gimnastek hartuko dute parte.

EDU MENDIBIL

**Gipuzkoako Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Labegaraletako kiroldegian, goizez eta arratsaldean. Ariznoako benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako gimnastek hartuko dute parte, banakako zein taldekako saioetan.**

Ariznoako gimnastekin batera, Azkoitia, Tolosa, Zarautz edo Arrasateko gimnastak izango dira lehen. Goizeko saioa 11:30ean hasiko da eta arratsaldekoa, berriz, 16:30ean.

Goizean, benjamin mailako gimnastak lehiatuko dira. Ariznoari dagokionez, hiru talde izango ditu bihar: Antzuolako Herri Eskolako taldean Eukene Bastarrika, Amaia Irastortza, Onintza Legorburu, Jone Larrañaga, Ane Alberdi, Izaskun Garmendia eta Alaitz Urkiolak jardungo dute; Ariznoako beste talde baten Aina Gonzalez, Judith Dobao, Kristina Etxeberria, Uxue Lazkano eta Josune Cantero izango dira; eta, azkenik, Olaia Cusi, Olatz Ugalde, Irene Aguayo, Alazne Mateos, Leire Aguayo eta Maria Corderok beste talde bat osatuko dute.

Arratsaldeko saioan, alebin, infantil eta kadete mailetako saioak izango dira, banaka zein tal-

deka. Alebin mailan, Antzuolako Herri Eskolako Ainhoa Martínez, Ainara Amorós, Jurdana Pildain, Usoa Toledo eta Lide Toledo gaztetxoek taldekako saioa eskainiko dute. Infantil mailan, Mariaren Lagundiko ikasleak aterako dira: Eider Carrasco, Lorea Albeniz, Ikerne Rodríguez, Oihane Agirre eta Saioa Ugarte-buru. Eta, azkenik, kadete mailakoekin Ipintzako taldea lehiatuko da: Maialen Legorburu, Virginia Odriozola, Izargi Vega, Sarai Ruiz eta Amaia Markiegik osatzen duten taldea, hain zuzen.

Esan bezala, banakako saioak ere izango dira Labegaraletan. Benjamin mailako Eukene Bastarrika eta Amaia Irastortzak hartuko dute parte banaka eta arratsaldeko saioan, Eider Carrasco eta Oihane Agirrek infantiletan eta Maialen Legorburu eta Virginia Odriozolak kadeteetan. Sonia Correderek zuzentzen dituen gimnasten maila ikusteko aukera izango dugu.

## ARTEAGA ETA GALLEGO, ONENEKIN

Bestalde, Irati Arteaga eta Sarai Gallegok A mailako Eskola Arteko Txapelketan hartu zuten parte Arrasaten. Sarai Gallego lehen postuan sailkatu zen infantil mailan eta Irati Arteaga hirugarren izan genuen kadete mailan. Aurtengoa Irati Arteagaren lehenbiziko urtea da kadeteekin.



Biharko txapelketan 200 bat gimnasta batuko dira kiroldegian.

ARTXIBOA

## FOTOKIROLA



## Shotokan karate taldeko gaztetxoek emaitza bikainak lortu zituzten Eibarren

Shotokan karate taldeko gaztetxoek maila ezin hobea erakutsi zuten zapatuan Eibarren: benjaminetan, Francisco Ramos eta Jone Agirrezabal hirugarren sailkatu ziren, gerriko laranjatik gora Mikel Aginagalde izan zen lehena, Haize Iñarra bigarren eta Ane Vicente eta Iker Moreno hirugarren; alebinetan, Julen Arana izan zen garaila, Mikel Jiménez eta Asier Riberaren aurretik, eta gerriko laranjatik gorakoetan, Ana Inclán hirugarren sailkatu zen; infantiletan, Aitziber Ferreiro eta Iasmina Moreno bigarren eta hirugarren tokian sailkatu ziren eta mutilen artean, Kepa Odriozola izan zen lehena eta Andoni Conde eta Patri Larrañaga hirugarren geratu ziren. Horiek guztiak Gipuzkoako Txapelketarako txartela lortu zuten. Senior mailan, Dani Muñoz bigarren izan zen Gipuzkoako Txapelketan, kumitetan, eta Raquel Blanco hirugarren izan zen, katetan. Josean Iñarra entrenatzailea oso pozik dago emaitzok.

TENIS

## Tenis Txapelketa hasiko da otsailaren 22an kiroldegian

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako Tenis Txapelketa jokatu da Bergara kiroldegian otsailaren 22tik apirilaren 27ra bitartean. Tenis txapelketa Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarria izango da. Partiduak Labegaraletako tenis pistan jokatuko dira, hiru setera. Izenematea Bergarako Kirol Zerbitzuan egin beharko da otsailaren 19a baino lehen. Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzearen eta gainerakoek, berriz, 15 euro. Argibideak, 943 77 91 67 zenbakian.

FUTBOLA

## Euskal Ligako gazte taldeak galdu egin zuen etxean

Euskal Ligan diharduen Bergara KEko gazte taldeak galdu egin zuen zapatuan Galdakako aurka Agorrosimen 0-1. Fernando eta Jabi Oregoren mutilak hamahirugarren tokian daude, 20 punturekin. Aste bukaeran, Zarautz taldeari bisita egingo diote. Zarautzarrak azkenurrekoak dira sailkapenean (15. postuan), 16 punturekin.

ZOKKETA

## Bergara KEko saskia 1.517 zenbakiarendako

Bergara KEk hileroko zozketa tzen duen saskia 1.517 zenbakiari tokatu zaio. Txartel hori Azpeitxi jatetxean saldu zuten. Txartelaren jabeak 649 444 903 zenbakira deitu behar du edo Piti Unamunorekin harremanetan jarri behar da. Hurrengo zozketan, saskiaren gain, Etxeberria erlojuztegarako 240 euroko erosketarako zozketatuko dute. Txartelak ohiko tabernetan daude salgai, bi euroren truke.

PALA

## Debagoieneko Pala Txapelketa Aretxabaletan

Debagoieneko kirol zirkuiturako puntuagarria izango da Pala Txapelketa jokatu da Aretxabaletako kiroldegian martxoaren 1etik apirilaren 12ra. Txapelketa binaka jokatu da, gomazko pilotarekin eta partiduak 35 tantora izango dira. Izenematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke. Argibideak, 943 77 91 67 telefono zenbakian.



SASKIBALOI SAILA

Kadete mailako bi taldeek datorren urtean lehen mailan jokatzeko aukerak dituzte.

SASKIBALOA

## Bergarak 50-36 irabazi zion Lacor taldeari kadete mailako derbian

Iker Barberok zuzendutako taldeak azken minutuetan lortu zuen aldea handitzea

E.M.

Zapatuan, Bergara KEko kadete mailako bi taldeak aurrez aurre izan ziren kiroldegian. Bergararren arteko derbia lehiatua izan zen, eta azken minutuetan erabaki zen, Barberoren taldearen alde.

Mikel Etxeberriak eta Fernando Moretonek entrenatzen duten taldean hainbat jokalaria lesionatuta zeuden, eta sei jokalaria baino

ez ziren kantxaratu. Zigorrak tartean, partiduko azken zatian, lau jokalarik bakarrik jokatu ahal izan zuten, eta orduan, Barberoren mutilek aldea handitu zuten. Ordura arte partidua berdinduta egon zen, 4-8 puntu bitarteko aldearekin. Barberok jokalaria hauek jarri zituen jokoan: Ander García (10 puntu), Asier Vicente (3), Iñaki Olaetxea, Jon Arteaga (4), David González (7), Arkaitz González (8), Antxon Hernández (13) eta Igor Moracho (5). Laco-

rren partetik honako hauek jokatu zuten: Julen Santamaria (6 puntu), Jakue Bernardo (4 puntu), Alvaro Arantzabal (4), Borja Galarraga, Unai Iturrospe (8) eta Josu Elortza (14).

Kiroldegian ordurik ez dagoenez, bi taldeak batera entrenatzen dira Mariaren Lagundian.

**ESKUBALOI PARTIDU BAKARRA DOMEKAN**  
Gazte mailako eskubaloi taldeak Arrateren aurka jokatu du domekan kiroldegian, 12:00etan.

## Kirol fitxak euskaratzeko beken deialdia egin dute

E.M.

Debagoieneko eta Debabarreneko euskara eta kirol zerbitzuek euskarazko kirol materiala sortzeko beken deialdia egin dute. Kirola Euskaraz programaren deialdi horretan, yoga, arku tiroketa, mendiko bizikleta edo hankapaluak izango dira jorratu beharreko jarduerak. Helburua, esan bezala, ikasleendako eta klubetako kirolariendako material teorikoa eta praktikoa sortzea da. Yogari dagokionez, 45-50 fitxa egitea eskatzen da, eta yogaren histori labur bat, ariketak, arnas-keta motak edo oinarriko hizte-

gi bat azaldu beharko dira. Kirol alternatiboen kasuan, 60-70 fitxa bitartean eskatzen dituzte eta hainbat probaren araudia, ezagunak edo espezialitate bakoitzeko berezko hiztegia jorratu beharko dituzte egileek.

**OTSAILAREN 25ERA ARTEKO EPEA**

Beka bakoitzaren zenbatekoa 3.000 eurokoa da eta behin lanak adjudikatu ondoren, egileek lau hilabete izango dituzte lana egiteko. Eskaerak otsailaren 25era arte aurkeztu ahal izango dira. Interesatuak Bergarako Kirol Zerbitzura (943 77 91 67) jo dezakete argibide eske.



ARTXIBOA

Besteak beste, mendiko bizikletaren gaineko materiala sortuko dute.

## Larrañagaren Berio taldea bisitari, bihar, Agorrosinen

E.M.

Preferente mailako Bergara futbol taldeak Berioen bisita izango du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:15ean. Juan Antonio Larrañaga Realeko jokalaria ohia dugu Berio taldeko entrenatzailea. Donostiarrak hirugarren dade sailkapenean, 43 punturekin. Zapatuan Irunen bana egin ondoren, Bergara seigarren dago sailkapenean, 36 punturekin.

Beste hiru partidu izango dira Ipintzan asteburuan: bihar, zapatua, nesken taldeak Urki hartuko du, 18:00etan; domekan, berriz, bigarren mailako gazteek Beti

Onaren aurka jokatu dute, 11:30ean, eta bigarren erregionalak Zumaiaoren aurka neur-tuko ditu indarrak, 16:00etan. Bergara zumaiarren aurretik dago, hiru punturen aldearekin.

**UDABERRI TXAPELKETA PILOTALEKUAN**

Bestalde, pilota partiduak izango dira gaur Udal Pilotalekuan, 19:15ean. Lehenbizi, kadete mailako lagunarteko partidu bat izango da, eta, horren ondoren, Udaberriko Txapelketaren barruan, Mikel Salegi eta Asier Larrañaga gazte mailako bikote bergararrak Añorgako bikote baten aurka jokatu du.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**ZAPATUAN, KANPOAN**

16:00: La Quinta del Buitre-Fac. Txipiron

17:00: Txipiron-TNT. Bayer

18:00: Bayer-Agirrebeña. TNT

**DOMEKAN, BARRUAN**

09:30: Agirrebeña-Bildurbarek. Etengabe

10:30: Cipote Nucleico-Etengabe. Bildurbarek

16:00: Mongatxurrak-Aterpe. Canalejas

17:00: Canalejas-Pagomendi. Mongatxurrak

18:00: Belengua-Kom. Piperrak. Pagomendi

### OHARRA


**GETOKUAK TALDEA, KANPORATUTA**

Bigarren aldiz partidu batera ez aurkezteagatik, antolatzaileek Getokuak taldea txapelketatik kanporatzea erabaki dute. Bestalde, De Ore taldeko Iñaki Aranzabali partidu bateko zigorra ezarri diote. Hurrengoan, bi partiduko zigorra jasoko dutela adierazi du Antolaketa batzordeak. Zapatuko partiduak kanpoan jokatu dira, kiroldegian gimnasia txapelketa dagoelako.




Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

## ELKARRIZKETA

MARIA JESUS UGALDE/SOPRANOA

# “Lehenengo aldia da Bergaran bakarka abestuko dudana; gogo handia nuen”

MONIKA BELASTEGI

Organo Zikloaren barruan emanaldia egingo du Maria Jesus Ugalde soprano bergararrak bihar. Aitor Olea organo jotzailearekin batera jardungo du Udalak antolatutako ekitaldian.

## Pozik, herrian abestu behar duzulako?

Oso pozik. Aspaldi nuen herrian bakarrik kantatzeko gogo. Izan ere, emanaldi sinfoniko koraletan bakarlari abestu izan dut, baina nik bakarrik ez dut kontzerturik eman.

## Zelan piztu zitzaizun kanturako zaletasuna?

Orain dela hainbat urte, akordeoi eskolak hartzen izan nintzen, urtebetez, Zaragozako kontserbatorioan. Han, ondoko gelan, kantu eskolak ematen zituzten, eta egunero entzuten nuen. Hura erabakigarria izan zen nik kantua ikasteko. Hala, hurrengo urtean Zaragozatik bueltatu eta kantu eskoletara joaten hasi nintzen. Beti gustatu izan zait abestea.

## Ikasi bai, baina oinarria ere izan behar da, hau da, ahotsa.

Bai. Eta koroan ere askotan animatzen ninduten kantua ikastera. Ahots polita nuela esaten zidaten. Dena dela, garai hartan, akordeoia ikasten nenbilen, eta lehenik hura bukatu nahi nuen.

## Zurea ez da oso lanbide arrunta...

Nire iritziz, hori Bergaran gertatzen da. Bergararik irtenez gero, Donostiara, esaterako, gauzak aldatu egiten dira. Han jende askok ikasten du. Bergaran beti



VALEN MOÑUX

egon da zaletasuna kororako, baina ez kantua ikasteko.

## Ahotsa bereziki zaindu beharko duzu.

Bai. Arreta handiagoa jartzen diot. Orain, etengabe zaintzen dut eztarria, erantzukizuna delako. Hasieran, gainera, asko arduratzen nintzen, baina, azken baten, ohitu egiten zara: ezinez-

koa da beti ondo egotea, nahiz eta zaindu. Eta ondo ez zaudenean, teknikak asko laguntzen du.

## Herriko taldeekin egiten duzunaz gain, beste hainbat talderekin ere jarduten duzu.

Kantua ikasten hasi nintzenean, Isabel Álvarezekin hasi nintzen, eta hark Capilla Peñaflorida taldean sartzeko esan-

## Zapatuan, San Pedron

Bihar, zapatua, Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloaren azkeneko emanaldia izango da, 20:00etan, San Pedro parrokian.

Gainera, hirugarren eta azken emanaldiak berezitasun bat izango du: organo jotzaileaz gain, soprano batek ere jardungo du. Organo jotzaile Aitor Olea durangoarrak jardungo du eta soprano, Maria Jesus Ugalde bergararrak.

Emanaldian hamar lan egingo dituzte: horietako zazpi organoak bakarka egingo ditu eta gainerako hirurak sopranoak eta organo jotzaileak egingo dute elkarrekin: J.S. Bachen *Kantata BWV 202*, C. Franken *Larrosen ezkontza* eta Vincent d'Indyren *Madrigal dans le style ancien Op. 4*.

Aitor Olea organo jotzaileak Arrasaten hasi zuen musika prestakuntza, eta Donostian, Bilbon eta Baionan egin ditu piano eta organo goi mailako ikasketak.

Hainbat kontzertu egin ditu Frantzia, Alemanian, Ingalaterran eta Euskal Herriko herri askotan. Bestalde, Bilboko Koru Elkarteak egindako hainbat emanalditan pianoa eta organoa ditu. 1988a ezkerro Lekeitioko Andra Mari eliza nagusiko organo jotzailea da.



Aitor Olea

ARTIBOIA

te irakasle batzuekin ikastera, ikastaroak egitera. Besteak beste, Holandan eta Italian izan naiz.

## Ze musika duzu gustuko?

Denetik gustatzen zait, bereziki, barrokoa: Bach. Abesteko orduan, erosoan barrokoarekin nago. Dena dela, gaur egun autorea ere gustura dihardut. Tesitura nahiko altua dutelako.

## Amodiozko gutunen sari banaketa, gaur

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, San Balentin egunarekin bat eginik, Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketako sariak banatuko dituzte, 19:30ean, Zabalotegi aretoan.

Urteroko ohiturari jarraituz, sari bakoitzak bere gutuna irakurriko du ekitaldian, eta, horren ondoren, Jardun elkarteak kideen eta epaimahaiko kideen eskutik dagokien saria jasoko dute.

Lehen saria 450 euro- Inaki Serrano 25 urteko eibartarrak hartuko du; bigarren saria eta Ira-

kurle Gazteen saria 240 euro eta Xabier Diaz de Zerrioren eskultura 19 urteko Uxue Alberdi elgoibartarrak eramango du; eta Herriko Gutun Onenaren saria 150 euro-, 41 urteko Roberto Izagirrek.

Horrez gain, Sakelako Telefono Bidezko Amodiozko Mezuen saria 90 euro eta sorpresa Gorka Beobide 25 urteko azpeitiarrak hartuko du.

*Basetxea* lehiaketako finalista izan zen Inigo Aizpuruak eta BERRIGARAko publizitate arduradun Mireia Larrañagak aurkeztuko dute ekitaldia.



## Urretxindorrek taldeak lan berria

Bergarako Urretxindorrek talde ezagunak CD berria dauka. Taldeko kideak San Antonioko Gure Ametsa elkartearen batuko dira datorren egunean, hilak 20, 19:30ean, eta han CD berria aurkeztuko dute. 1966. urtean sortu zuten taldea eta zazpi urteko ibilbidean bost single grabatu zituzten; 18 abesti guztira. *Urretxindorrek, Bergara 2003* izeneko disko berriari kantu horiek guztiak eta zentsurarekin izandako arazoengatik grabatu ezin izan zituzten beste bost jaso dituzte.

E, TXO!

GUREGAIK / GAZTE MUGIMENDUA

# Gazteendako webgune berria laster sarean


AINZANE IRIZAR

Hainbat esparrutako gazteek Gaztesarea izeneko talde eta egitasmoa aurkeztu berri dute. Euskal gazte mugimendua eraiki eta garatzeko bitartekoak eskaini eta, era berean, lanabes izan nahi du.

Komunikazio proiektua da, batez ere, Gaztesarea egitasmoa. Izenak berak esaten duen moduan, Euskal Herriko gazteen sarea osatzea da Gaztesarea egitasmoaren helburu nagusietako bat; bestetik, gazteen arteko esparru komunikatibo propioa eratu nahi dute, baita gazteen arteko eztabaidak bultzatu eta euskal eredu alternatiboak sortu ere.

Hori guztia lortzeko lanean dihardute proiektuaren bultzatzaileek. Interneteko ataria eta KZ izeneko aldizkaria izango dira egitasmoaren lehendabiziko emaitzak. Martxoaren leian, hain zuzen ere, sareratuko dute Gaztesarearen webgune hori. Gazte euskaldunen bilgune birtuala izan nahi du webgune horrek, eta honako helbidea izango du: [www.gaztesarea.org](http://www.gaztesarea.org).

Denbora luzea daramate egitasmo horren bultzatzaileek lanean; proiektua, baina, konplexua eta handizalea da, eta laguntza behar dute. Hainbat eragilerek hartu-emanetan dihardute Gaztesareko kideek, eta proiektu horretarako kolaboratzaile sarea osatzen ere badihardute.



[www.gaztesarea.org](http://www.gaztesarea.org) helbidean aurkituko duzue webgunea martxotik aurrera.

LOTSABARIK / Arkaitz Amenabar

## “Gauza batzuetarako oso lotsatia naiz”

A.I.

Badirudi, hala ere, elkarrizketa hau egiteko lotsak alde batera laga dituela Arkaitzek. Argazkia ateratzerako orduan, baina, zeharo lotsatu zaigu Osintxuko mutila; hori ere esan behar da eta; osintxuarrak dela, alegia.


- Txikitan, zer izan nahi zenuen?  
Futboleko atezain izan nahi nuen; jolastorduetan atezain jokatzen nuen lagunartean.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?  
Espero dut pixka bat formalduta egotea; dena dela, ez naiz horrelakoetan pentsatzen jartzen.

Etortzen dena hartu beharko dut, eta kito.

- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?  
Etxeko lanetan gehiago laguntzeko.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.  
Adibidez, asteburu baten zerbait lortu nahi badut, ordura arte formal ibiltzen naiz.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?  
Neure buruari, neu ondo sentitzeari.
- Zure bertute bat?  
Horri ez diot nik erantzungo; ezagutzen nautenei galdetu beharko zaie hori.
- Eta hutsune bat?


Gauza batzuetarako lotsatia naiz; bestalde, jenio bizia daukat.

- Zerk amorratzen zaitu?  
Espainiako eta Nafarroako gobernukoek izugarri amorratzen naute; Aznarrek, Sanzek...
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?  
Daukadana tokatu zait, eta horrekin konformatzen naiz.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?  
Aurpegiari, orokorrean.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?  
Berba egin eta elkar ezagutzen saiatu, besterik ez.
- Fantasia sexual bat. Norekin eta non?  
Asko dauzkat, baina ez ditut hemen kontatuko.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Goi mailako Informatika eta Telekomunikazio ikasketak • ZALETASUNAK: Kirolak, musika eta parranda  
LIBURU BAT: Ez du irakurtzen • FILM BAT: 'Braveheart' • MUSIKA TALDEA: Hertzainak eta Delirium Tremens • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA / Gorka Ortega eta Jon Alvarez



## ZAHARRENETXETIK

# San Joxepe erretiratuen elkarteak 98 bazkide egin zituen joan zen urtean

EDU MENDIBIL

**S**an Joxepe elkarteak 98 bazkide egin zituen aurreko urtean. Gaur egun, 1.646 bazkide daude San Joxepen. Eguaztenean, hilaren 19an, 2002ko bigarren seihilekoan egindako bazkideekin batzarra egingo dute egoitzan, 17:00etan.

Joan den urteko bigarren seihilekoan, 28 lagun egin ziren San Joxepeko bazkide. Horiei batzarrera joateko dei egiten diete. Besteak beste, elkartearen funtzionamenduaren berri eta erretiratuek antolatzen dituzten jardueren berri emango diete. Zuzendaritzak sei hilabete behin antolatzen ditu horrelako batzarrak bazkide berriekin. San Joxepeko presidente Tomasa Zabaletaren esanetan, "helburua elkarte barruko funtzionamendua hobetzea eta bazkideen arteko harremanak sendotzea da". Bazkide kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Iaz, 98 lagun egin ziren bazkide, horietako asko, 65 urtetik beherako aurretik erretiratuak. Zabaletaren hitzetan, "logikoa denez, bajak ere izan dira, baina elkarte handituz doa, eta pozik gaudela. Elkarte bizi-bizirik dagoela erakusten du bazkide kopuruak. 2.000 bazkide izatera heltzeko asmoa dugu aspalditik, eta, hain zuzen ere, horrela jarraituta etorriko da hori".

Urteko kuotari dagokionez, 8,40 eurokoa izango da, eta dagoeneko hasi dira kobratzen. San Joxepeko Zuzendaritza batzordeak jakinarazi duenez, bazkideek harrera gelan ordain dezakete. Hala ere, gauzak errazteko, kuotak helbideratuta izatea eskertuko luke Zuzendaritzak.

San Joxepetik elkartearen funtzionamendua hobetzeko urratsak ematen jarraitu nahi du.

*Bazkideen urteko kuota 8,40 eurokoa izango da, eta dagoeneko hasi dira kobratzen*

*2002ko bigarren seihilekoko bazkideekin batzarra egingo dute eguaztenean*

Tomasa Zabaletak adierazitakoren arabera, laster ezagutzera emango dituzte horren gainean LKS enpresarekin iaz egindako

azterketaren emaitzak. Era berean, Gipuzkoako Nagusien Kontseiluarekin lankidetzan hasiko dira San Joxepekoak.

**ENKARTERRIETARA IRTEERA**

Bestalde, Enkarterrietara egun osoko irteera egingo dute erretiratuek otsailaren 26an. Besteak

beste, Sopuerta eta Balmaseda bisitatuko dituzte. Izenemate epea, astelehenera arte (hilak 17 zabalik, San Joxepen bertan.



Deutsche Post World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalera bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expressekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expressekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?


[www.guipuzcoana.com](http://www.guipuzcoana.com)

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - [bergara@guipuzcoana.com](mailto:bergara@guipuzcoana.com)

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.



**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein plazatan dago debeku hau?

**GALDEDEBALDE**

**1.**  
Zein urtetan eraiki zuten Bergarako kanposantua?

- A/ 1855.
- B/ 1874.
- C/ 1903.

**2.**  
Hauetako zein taldetan dabil Maria Jesus Ugalde soprano bergararra?

- A/ Golden Camara.
- B/ Chorus Line.
- C/ Capilla Peñafloreda.

**3.**  
Berio taldeko entrenatzailea Realeko kapitaina izan zen. Nor da bera?

- A/ Arkonada.
- B/ Kortabarria.
- C/ Larrañaga.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**BEGOÑA URKIZU**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.  
Zorionak, Begoña!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Bolun** / Galde debalde: **1-B, 2-B, 3-A.**



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....


**Scottex komuneko papera**

12 + 4 doan

**2,85 €**

474 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



JOSU OKINA

**PINTOREBERGARARRAKGAUR**

**Santos Okina**

EDU MENDIBIL

**S**antos Okina (Bergara, 1947) nahiko berandu hasi zen margolaritzan, orain dela 15 bat urte: "Betitik gustatu izan zait pintura, eta beste konpromiso batzuk alde batera lagatakoan hasi nintzen. Ez nuen eskolarik hartu, norberak ordu pilo bat sartu behar ditu hobetzeko. Dena dela, Miguel osabarekin, Josu anaiarekin eta Mikel Lazpiurrekin irteten naiz askotan margotzera, eta haiek dira nire erreferenteak, nolabait". Gaur egun, Durangon bizi da (Iurretan dabil irakasle), eta Arte Ederrak ikasten diharduen Iraia alabarekin batera margotzen du goizero.

Paisaiak eta natura hilak margotzen ditu eta, batez ere, pintore inpresionistak eta Barbizon eskolakoak ditu gustuko. Zera diosku: "Oreka duten konposizioak egiten ahalegintzen naiz, marrazkia, kolorea eta tonua zainduta. Olioak egiten ditut normalean, eta akuarela ere gustatzen zait, aukera handiak ematen dituelako". Orain arte erakusketa kolektiboetan bakarrik hartu du parte: "Zerbaitera ailegatutakoan bakarkakoa egitera animatuko naiz".

*"Margotzerakoan, oreka duten konposizioak egiten ahalegintzen naiz"*

**GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES**

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Mujika gozotegia**



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



**ARRI**

Industri hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68



BERGARA  
**Xabier Alberdi**  
Otsailaren 19an urtebete.  
Zorionak! Familiakoak.



BERGARA  
**Christian Castelo**  
Otsailaren 19an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Nora Casquero**  
Otsailaren 15ean 6 urte.  
Zorionak! Etxekoak,  
Aritz, Aroa eta Ekhi.



ANTZUOLA  
**Sergio Hernando**  
Otsailaren 12an 26 urte.  
Urte askotarako!  
Anezkakoak.



BERGARA  
**Raul Sánchez**  
Otsailaren 8an 16 urte.  
Urte askotarako!  
Neska bat.



BERGARA  
**Josu Eleizburu**  
Otsailaren 20an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak; bereziki, Iker.



BERGARA  
**Jon Etxaniz**  
Otsailaren 11n urtebete.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Onintza Egaña**  
Otsailaren 12an 26 urte.  
Urte askotarako!  
Lagun bat.



BERGARA  
**Saioa Galarraga**  
Otsailaren 13an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Edurne Gorosabel**  
Otsailaren 14an 19 urte.  
Urte askotarako!  
Martin eta Rakel.



BERGARA  
**Beñat Rezusta**  
Otsailaren 13an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aritz.



BERGARA  
**Aitor Elizburu**  
Otsailaren 15ean 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Amaia.



BERGARA  
**Amaia Urkia**  
Otsailaren 12an 12 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



BERGARA  
**Ander Kerexeta**  
Otsailaren 26an 5 urte.  
Zorionak! Etxekoak,  
aitona-amonak eta Paki.



BERGARA  
**Jone Agirrezabal**  
Otsailaren 19an 9 urte.  
Zorionak! Garazi, Aitor,  
aitatxo eta amatxo.



ELGETA  
**Juli Bilbatua**  
Otsailaren 17an 75 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ELGETA  
**Fernando Ojanguen**  
Otsailaren 16an 44 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Saray Plazas**  
Otsailaren 13an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Yaiza.



BERGARA  
**Xabier Unamuno**  
Otsailaren 20an 28 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903







**PROFESIONAL**  
*liberalen*  
**GIDA**

**ABOKATUAK**

**RAFAEL ARANBURU**  
Irizar 5. 943 76 10 81

**MILAGROS LARRAÑAGA**  
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
Irizar 5. 943 7610 81

**ANA MOZOS**  
San Pedro 6. 943 76 45 52

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
Irizar 2. 943 76 03 35

**UGALDE & ASOCIADOS**  
Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57  
Faxa 943 76 03 02

**ZABALETA ABOKATUAK**  
Artekalea 12. 943 76 21 71

**INJINERUTZA**

**ANGEL ARIZABALETA PADILLA**  
Espoloia 10. 943 76 59 18

**ESTHER FRAILE HERNÁNDEZ**  
(Nekazal injinerutza)  
Simon Arrieta 2A. 943 76 72 99

**TEKNIBER**  
Urarte 18. 943 76 53 19

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**  
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

**APAREJADOREAK**

**XABIER GALLASTEGI**  
Ibargarai 35 (barruko plaza).  
943 77 70 00

**JOSE INAZIO MONDRAGON**  
Zurradero 8. 943 76 00 44

**AHOLKULARITZA**

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
Artekalea 1. 943 76 03 50

**ALFIS**  
Ibargarai 22. 943 76 48 48

**TBG AHOLKULARITZA**  
Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ZUHURKI SL**  
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

**ARKITEKTUAK**

**JON MUNIATEGIANDIKOETXEA**  
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

**JESUS LASKURAIN PÉREZ**  
Zurradero 4. 943 76 53 53

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 14a / 146. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Uzarragako errepedeiri behin-behineko irtenbidea eman diote

AINTZANE IRIZAR

Badira bi aste Uzarragako bidea itxi zutela. Ohikoak diren lur mugimenduetatik apurtu egin zen errepedea; ordutik hona, hainbat bide alternatibo erabili behar izan dituzte auzotarrek. Hala, Diputazioak behin-behineko irtenbidea eman dio arazo horri.

Bi tokitan apurtu da Uzarragako bidea, Azkarate baserriaren parean: Azkaraterako bidegurutzea baino beheaxeago, batetik, eta bidegurutze hori baino goraxeago, bestetik. Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek egoera horri behin-behineko irtenbidea eman nahi izan diote. Hasiara baten, bidegurutzea baino gorago zatia bakarrik konpontzeko asmoa zuten; goiko aldeko zatia konponduta, Lizarraga auzoko bidea hartu eta Azkarate baserriatik pasatuta Uzarragara iristea posible zelako.

Azkenean, baina, apurtuta zeuden gune guztiak konpondu dituzte Diputazioko langileek. Astelehen goizean hasi zituzten konponketa lanak, eta astea amaitzerako bidea konponduta egotea espero zuten. Sortutako ebakiak berdindu dituzte, baita errepedea asfaltatu ere.

**BEHIN BETIKO IRTENBIDEA, ZAILAGOA**  
Esan bezala, baina, behin-behineko konponketa besterik ez da izan oraingo hori. Edozelan ere, Diputazioko arduradunen esanetan, errepede horri behin betiko irtenbidea ematea oso zaila da. Garestia, baina, batez ere, oso konplexua izango litzateke



Astelehen goizean hasi ziren errepedea konpontzen Diputazioko langileak.

netan, errepede horri behin betiko irtenbidea ematea oso zaila da. Garestia, baina, batez ere, oso konplexua izango litzateke

errepedea konpontzea. Izan ere, nahiz eta oraingoz konponduta geratu, lur mugimenduak etengabeak dira.

Bestalde, errepede apurketa gertatu den bihurgunera goitik datorren ura desbideratzeko asmoa dauka Diputazioak, horrek ere eragina duelako horrelako apurketetan.

Gainera, errepedearen trazaketa aldatzeko aukera aztertzen ere dihardute Diputazioko teknikariek. Hau da, Uzarragara iristeko errepedea beste nonbaitetik egin ote daitekeen aztertzen dihardute. Horrek, baina, lan handiagoa eskatzen du, eta luzerako jo dezake oraindik.

**Astea bukatzerako errepedea konpontzeko lanak bukatuta izatea espero dute**

**Errepedearen trazaketa aldatzeko aukera aztertzen ari dira Diputazioko arduradunak**

## LABUR

### Ipuin kontaketa, bihar, zapatua, liburutegian

Udal Liburutegiak umeendako ipuin kontaketa emanaldia antolatu du biharko, zapatua. Arratsaldeko seietan izango da emanaldi hori, Udal Liburutegian bertan, Eguzki auzoan. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak *Pako fakirra* ipuina kontatuko du hantxe, umeen eta hain ume ez direnen gozamenerako.

Urtean hainbat ipuin kontaketa saio antolatzen ditu Udal Liburutegiak, umeen eta gaztetxoaren artean irakurzaletasuna eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

### Guraso Elkartearen eraikina botatzeko lanak, esleituta

Aurreko astean egindako osoko bilkuran, Guraso Elkartearena izandako eraikina eraisteko lanak esleitu zituen udalbatzak. Loiuako (Bizkaia) Danok Bat enpresari esleitu zizkieten eraisteko proiektu idatzi eta eraikina botatzeko lanak.

Antzuolako Udalak lan horiek lehiaketara atera zituenetik, zazpi enpresa aurkeztu ziren. Antzuolako Udaleko arduradunen esanetan, datuaren hilean, martxoan, hain zuzen ere, maristena izandako eraikin hura botako dutela espero dute.

## Antzuolaren gainean berbetan

Mireia Unamuno alkatea GOITBn

**Goitb**  
Goiena Telebista

### HERRILAN

- Eguaztena, otsailak 12, 20:30, 21:15, 22:30, 23:15
- Errepikapena eguenean, 14:00, 15:00
- Errepikapena asteburuan



# Herriko gimnastak, Gipuzkoako Txapelketan

AINZANE IRIZAR

Antzuolako gimnasia erritmiko taldeko hiru neskak Gazteen Gipuzkoako Txapelketa jokatzen dihardute. Hilaren 1ean jokatu zuten lehendabiziko sailkapen saioa, Arrasaten; finalerako bigarren sailkapen saioa, berriz, martxoaren 22an jokatuko dute, Bergaran.

Hiru antzuolarrek dihardute Gipuzkoako Txapelketan: Maialen Toledok, Iraitz Gastiainek eta Uxue Arregik, hain zuzen ere.

Hilaren 1ean jokatu zuten lehenengo sailkapen saioa. Maialen Toledo lehenengo izan zen, Uxue Arregi hirugarren eta Iraitz Gastiain bederatzigarren.

Gimnastok azaldu zigitenez, Maialenek lan ona egin zuen Arrasaten, baina Uxuek eta Iraitzek nahiko zorte txarra izan zuten euren saioetan. Martxoaren 22an jokatuko dute hurrengo sailkapen saioa, Bergaran.



Zutik, Iraitz Gastiain; lurlean, berriz, Uxue Arregi eta Maialen Toledo.

## ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

Bestalde, bihar, zapatua, Eskola Arteko Txapelketa jokatuko dute Bergarako Labegaraietako kirol-

degian. Txapelketa horretan Antzuolako hamabi neskak hartuko dute parte, alebin eta benjamin mailetan. Benjaminek

11:30ean jokatuko dute txapelketa; alebinek, berriz, arratsaldean, 16:30ean. Denetara, 200 bat gimnastak hartuko dute parte.

## LABUR

### Iñigo Ramírezek antzinako ohituren gaineko hitzaldia egingo du eguenean

Datorren astean, domekan, *Bizitza pasarteak Antzuolan* liburua aurkeztuko du Iñigo Ramírez de Okariz historiagileak. Antzuola Herria Ikerketa Bekaren laugarren emaitza izango da liburu hori. Aurkezpen horrekin lotuta, baina, bestelako ekitaldiak ere antolatuko dituzte. Besteak beste, datorren eguenean, hilaren 20an, antzinako ohituren gaineko hitzaldia egingo du Ramírezek Orlaran etxean, 19:00etan. Asteburu horretan eta hurrengoan, bestalde, base-rritarren jantzien gaineko erakusketa jarriko dute Orlaranen.

### Herrigunea biziberritzeko planaren oinarriak onartu ditu udalbatzak

Aurreko asteko eguenean, otsailaren 6an, egin zuen udalbatzak osoko bilkura. Batzarrean, besteak beste, herrigunea biziberritzeko planak zein oinarri izan behar dituen erabaki zuten. Iñaki Berasategi arkitekto bergararrak egin zuen dokumentuaren aurre-berriak, eta hainbat proposamen egin zituen hantxe. Aurrerapen hori jendaurrean egon da; orain, behin oinarriak onartuta, herrigunea biziberritzeko plana bera idatzi beharko du Berasategik. Gero, jendaurrean jarriko dute berriro plan hori, behin betiko onartu aurretik.

### Arrola mendi elkarteak bi irteera antolatu ditu datozen bi asteburuetarako

Etzi, domeka, Arlaban mendetik Urkulurainoko ibilaldia egingo dute Arrolakoek. Bidean, Elgeako haize-errotak, Degurixa eta Kurtzebarri ikusi ahal izango dituzte, besteak beste. 08:30ean irten-gera, plazatik. Hurrengo astebururako, berriz, iraupeneko eskia praktikatzeko irteera egitea zuten pentsatuta Arrolakoek, baina bertan behera laga dute. Horren ordez, egun baterako eski irteera antolatzeko asmoa dute, gertuagoko pistaren batera.



### Kruz hiru urtean izan zen gerran

Orain dela bi asteko KONTUOLAn Espainiako gerran ibilitakoen gaineko artikulua argitaratu genuen, eta akats bat egin genuen; izan ere, Kruzek gerran ez zuela parterik hartu esan genuen, eta hori ez da horrela.

Hiru urte eman zituen gerran, Espainia osoan. Horren lekuko da argazkian ikusten den margolana, zein tokitan ibili zen zehazten duena. Kruzek hiru urte haietan hartutako apunteetan oinarrituta egin zion margolana haren anaiak, Serapiok./A.I.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Otsailak 15  
16:15: Antzuola-Urki (2. erregionala)

#### PILOTA

Otsailak 15 (Gipuzkoako Txapelk.)  
17:00: Olalde-Murumendi (Infantilak)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Aretxabaleta 5 Antzuola 3 (Erreg.)  
Antzuola 3 Behobia 3 (Gazteak)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Hernani-Olalde (infantilak) . . . . . 18-9  
Udaberri saria  
Olalde-Urnieta (nag. paletaz) . . . 35-12  
Olalde-Batzokiko (nag. eskuz) . . . 22-6

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA. Tel. 943 76 60 89

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko otsailaren 14a / 130. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Urteroko batzarra egingo dute bihar mendizaleek


OXEL EROSTARBE

Euskal Mendizaleen Elkarteak deituta, bihar arratsaldean, batzarra egingo dute Elgetan Euskal Herriko mendi elkarteetako ordezkariak. Euskal Mendizale Elkartearen presidentea Antxon Bandresek adierazi duenez, hiru urte barru museoazabaltzea espero dute.

Azken urteotan bezala, aurten ere Elgetan egingo du Euskal Mendizale Elkarteak urteroko batzarra. Batzarra bihar, zapatua, izango da, 15:00etan, Espaloia aretoan. Besteak beste, gai hauek aztertuko dituzte biharko batzarrean: ibilaldi luzeetarako araudi berria; Federazioen Batasunarekin bategitea; Iparraldeko Taldeak EMFn; UIAA; 2003rako aurrekontuak; 2002ko urtekariaren aurkezpena; 2003rako asmak; eta eskaerak eta galderak.

### MENDIAREN MUSEOA AURRERA DOA

Euskal Mendizale Elkartearen presidentea Antxon Bandresek GOIBEKOKALEri adierazi dionez, hiru urte barru Mendiaren Museoazabalik egotea espero dute: "Elgetako Udalak eta gure elkar-



Iazko batzarra ere Espaloian egin zuen Euskal Mendizale Elkarteak.

teak etengabe dihardute harremanetan Mendiaren Museoaren proiektua aurrera eramateko. Hiru urte barru museoazabalik egotea da gure nahia. Hasi gara

museoan ipiniko ditugun zenbait gauza Elgetan lagatzen: adibidez, Tximist espedizioak Everestengainean egindako maketa Elgetan egongo da bihartik aurrera".

## IKASTAROA

### Pertsona nagusiak eta gaixoak zelan zaindu

O.E.

Pertsona nagusien eta gaixoen zaintzaile familiarrendako Udaleko Ongizate Zerbitzuek antolatutako ikastaroa atzo hasi zen. Ikastaroaren helburua pertsona nagusiak eta gaixoak behar den bezala zaintzeko argibideak ikatea da. Zazpi elgetarrek eman dute izena.

Atzo hasi zen liburutegian pertsona nagusien eta gaixoen zaintzaile familiarrendako ikastaroa. Udaleko eta Diputazioko ongizate zerbitzuek antolatu dute ikastaroa. Eta zazpi lagunek eman dute izena. Atzo hasi eta martxoaren 27a bitartean, eguenero izango dute ikastaroa. Kultura etxean izango da, 15:00etatik 16:30era.

Ikastaroan dihardutenek pertsona nagusiak eta gaixoak zaintzeko oinarritzko argibideak zeintzuk diren ikasiko dituzte. Beste batzuen artean, gai hauek landuko dituzte ikastaroan: SENDIAN programaren aurkezpena; zainketaren alde fisikoa (mediku eta erizainekin zerikusia duena); lana errazteko bideak (etxea ego-

kitzea, sarrerak, barrua, segurtasun neurriak...); legearekin zerikusia duten gaiak (ezintasun prozesuak, tutoretza, testametuak, egoitzetan sartzea...); eta alde psikologikoa (gaixotasunak zaintzailearengan duen eragina). Gai bakoitzean horretan diharduten mediku eta erizainek emango dituzte argibideak. Ikastaroaren helburua argia da: pertsona nagusiak eta gaixoak behar den moduan zaintzen ikatea. Ikastaroaren gaineko informazio zabalagoa Udaleko Ongizate Zerbitzuetan jaso dezakezue.

### SAHARARAKO 187 KILO JANARI

Aurreko hilean, errefuxiatu sahararrendako janari bilketa egin zuten Ongizate Zerbitzuek. Kampaina aurreko astean amaitu zen, eta Elgetako dendetan 187 kilo janari batu dituzte.

Hala, Udaleko Ongizate Zerbitzuek eskerrak eman nahi dizkiete errefuxiatu sahararrendako janari bilketan parte hartu duten elgetarrei. Elgetan batutaiko janaria Gipuzkoako gainertzaiko herrietan jasotakoarekin batu eta hurrengo asteotan bidaltuko dute Sahara aldera.

## KORRIKA

### Kilometroa izango du Elgetak Korrika 13n


Martitzen arratsaldean, Korrikaren aldeko herri batzordea sortzeko batzarra izan zen liburutegian. Herriko hainbat elkartetako kideak izan ziren bertan. Korrikaren gaineko azalpenak entzun eta gero, Elgetan ere Korrika 13ren aldeko batzordea sortzea erabaki zuten.

Datozen asteotan, zenbait batzar egingo dituzte, Elgetan Korrikaren alde aurrera eramán daitezkeen ekimenak zehazteko. Lehenengo batzarra datorren astelehenean izango da, hilaren

17an, 19:00etan, liburutegian. Korrikaren aldeko herri batzordeak bertan parte hartzera deitu nahi ditu herriko elkarteak.

### KORRIKA TXIKIA EGINGO DUTE

Korrika Elgetatik pasatuko ez den arren, Arrasate eta Elorrio arteko azken kilometroan Korrikako testigua eramateko aukera izango dugu elgetarrok. Korrika dela eta, beste zenbait ekintza aurrera eramatea ere pentsatu du Elgetako batzordeak. Besteak beste, Korrika Txikia egingo dute.



AEK-ko arduradunek Korrika 13ren nondik norakoak azaldu zituzten liburutegian.

## LABUR

### Gaur gauean, San Valentin dantzaldia Espaloia aretoan

Erretiratuek antolatu dute dantzaldia, eta 21:00etan hasiko da. Maiteminduen egun honetan, Espaloian elkartu direnendako mahaia eta aukerak ipiniko dituzte erretiratuek. Eta kafea eta freskagorriak ere egongo dira. Musikal Araba arduratuko da gaur alaitzeaz.

Edozelan ere, jaia ez dute erretiratuendako bakarrik antolatu; hori dela eta, erretiratuek adin guztietako herri-tarrei Espaloira hurbiltzeko gonbidapena egin gura dute.

KZGUNEA


# Ikastaro bereziak, txandaka lanean diharduten langileendako

O.E.

Ikastaro trinkoak antolatu dituzte KZGunean, txandaka lanean diharduten langileendako. Ikastaroak astebete iraungo du eta otsailaren 24an hasiko da. Egunero lau orduko eskolak izango dituzte. Interesatuak izena eman behar dute KZGunean bertan.

Azaroaren 11n Elgetako KZGunea zabaldu zutenetik hona, 50 lagun inguruk hartu dute parte antolatu dituzten ikastaroetan. Ikastaroek aste bi irauten dute, normalean, eta egunean bi orduko eskolak ematen dituzte. Txandaka lan egiten duten Elgetarrek ordutegiarekin arazoak zituzten ikastaro arruntetan parte hartzeko; hori dela eta, txandaka lanean dihardutenendako ikastaro trinkoa antolatu dute Elgetako KZGunean.

Ikastaroa otsailaren 24tik 28ra (biak barne) izango da, eta eskolak arratsalde izango dira, 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren gaineko informazio zabalagoa gura dutenek eta bertan parte hartu gura dutenek Elgetako KZGunerako jo behar dute edo, bestela, 943 78 90 16 telefono zenbakira deitu behar dute. Elgetako KZGunean antolatzen dituzten gainerako ikastaroak bezala, ikastaro hori ere doan da.



Elgetako KZGunean egunero izaten dira Interneten gaineko ikastaroak.

**ARAU SUBSIDIARIOAK INTERNETEN**  
Oraingo astean bertan, Udalak sarean sartu ditu datozen zortzi urteei begira Elgetarako proposatzen dituen arau subsidiarioak. Hain zuzen ere, [www.elgeta.org](http://www.elgeta.org) helbidean ditugu arau subsidiarioak. Eta hilabete daukagu arauak alegazioak egiteko.

Horretarako, baina, udaletxera jo beharko dugu.

Elgetako webgunean, Udalean sortzen diren berrien gaineko informazioa berritzen da astero-astero. Informazio hori guztia zure posta helbidean jaso gura baduzu, [www.elgeta.org](http://www.elgeta.org) helbidean dituzu argibideak.

KULTURA

# Jende ugari White Flag-en kontzertuan

O.E.

AEBetako taldeak ez ziren hutsik egin Elgetara gerturatu ziren zaleei. Hogei urteotan goi mailan zergatik egon diren erakutsi zuten Espaloiko taula gainean. Kontzertua Ken Stringfellowren -White Flag-eko abeslaria- doinu akustikoekin hasi zen. Bakarririk izan zen taula gainean. Hala, gitarra akustikoaren doinuekin lagunduta, hasiera lasaia eman zion kontzertuari.

White Flag-eko gainerako kideak taula gainera igo zirenean, doinu akustikoek pop doinu

emane eman zieten bidea. Espaloiaren batutakoek gozatu ederra hartu zuten orduan. Bukaeran, dagoeneko ohitura bihurtu den legez, ia biluzik amaitu zuen Ken Stringfellowk.

**ESPALOA EGOKITZEKO BEHARRA**

Diputazioko arduradunek zera adierazi zuten: "Zapatuan argi eta garbi ikusi zenez, Espaloiak era horretako kontzertuak egiteko aukerak ematen ditu. Aretoa egokituta egonda, kanpotik jende ugari erakartzeaz gain, elgetarroi maila handiko taldeak entzuteko aukera emango dizue".




Goi mailan zergatik dagoen erakutsi zuen White Flag taldeak Elgetan.



## Datorren urtian, bost ikasle gehixau

Gaur bukatzen zan, datorren urteko ikasturterako Eskolan matrikulatzeko epia. Honek lerruok idatzian, bost ume ziran, datorren ikasturtera begira eskolan matrikulatu diranak. Eskolako arduradunek esan doskuenez, beste bi edo hiru ume falta ziran matrikulatu betetzeko. Aurten matrikulatutako haur kopurua, aurreko urtietakuan parekoa da. /O.E.



## Lapurrak sartu ziran gaztetxian

Aurreko astian, lapurrak sartu ziran Elgetako gaztetxian. Erretratuan ikusten denez, lokala nahiko nahastuta laga zeben lapurrek. Tabernan zeguan musika aparatua lapurtu zeben. Gaztiak salaketia jarri dabe Bergarako ertzain etxian. Edozelan be, Ertzaintzak ikertzen diharduen arren, zailla izango da lapurrak harrapatzea. /O.E.

LABUR

## Garzónen ebazpena Elgetako Udalera ere heldu da

Garzón epaileak urriaren 16an kaleratutako ebazpen baten "garbiketa etnikoa" egitea egotzi zion Batasunari. Hala, esandakoa frogatzeko, HBk, EHk eta Batasunak azken 25 urteotan egindako jardueren gaineko informazio guztia eskatu die Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei.

Debagoieneko Udalen artean Elgetako Udala izan da Garzón epailearen ebazpena jaso duen azkena. Hain zuzen, urtarrilaren 30ean jaso zuten ebazpena Udalean. Bi eratako dokumentuak eskatzen dira: batetik, HBk, EHk eta Batasunak azken 25 urteotan aurkeztutako mozioen testuak; eta, bestetik, HB, EH eta Batasunarekin lotutako istilu, gaitzespen eta ekitaldi atzeratzeen gainean esandakoen testuak. Testuok Madrilera bidali behar ditu Udalak, otsailaren 17a baino lehen. Dokumentuok gertatzen dihardute.

## ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Bigarren Korrika  
Elgetatik pasau  
zanekua

**H**emen astian aurkeztu dabe aurtengo Korrikako kantua. Hori kantuori, apirillian Euskal Herriko baztarrak zeharkatuko dittuan Korrikaren aurrerapena da. Azkeneko urtotan gure herritik pasau ez dan arren, Elgetan Korrikazale ugari dago. Onduan ikusten dozuen erretratua Korrika egin zan bigarren aldikua da. Iruñean hasi eta Donostian bukatu zan. Hau izan zan orduko lelua: *AEK, euskararen alternatiba herritarra; Korrika, herriaren erantzuna euskararen alde*. Aurtengo Korrika 13.a da. Maulen hasi eta Iruñean amaittuko da.

Hau erretratua San Romanen atarata dago, Korrikaren testigua elorrixokuei emon ostian. Erretratuan agertzen diranak: Mari Karmen Irazabal, Mariasun Agirre, Mikel Arantzeta, Maria Angeles Gerediaga, Arantxa Aretxaga, Itziar Olabe, Begoña Izagirre.

Urtea: 1982ko maiatza



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Andra Mari  
plazia

**A**ndra Mari plazia da gaurkuan hona atal honetara ekarri dotsuegun erretratuetan ikusten dozuena. Elgetarrok eliza aurreko lorategiak jardiñak moduan ezagutu izan dittugu beti. Alboko erretratuetan ikusten danez, lorak ez dira izan urtiak aurrera egin ahala plazan aldatu diran gauza bakarra. Farolak be aldatu dira, eta plazia hobeto zainduta dago azkenaldixan.



≈ 1950

Han urtietan, erretratuan ikusten dittuzuen farolak zeren herri guztian. Lorategixa be beste modu batera zainzten zebe.



2003

Gaur egunian, lora gehixago ikusiko dittugu lorategixetan baita etxietako balkoietan be Arkupiak, barriz, antzera jarraitzen dabe.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**ARDATZA**  
Brikolajea

Ateak eta zokaloak

Horma-armairuak

Sarrailak

Heldulekuak

Koadroak markoan ipini

Era guztietako moldurak

Apalak

Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

# SARRERA DOAN

## Astebururako plana zabal-zabalik

Eguenetan,  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
Amagoia Lasagabaster



*Ikusiko  
duzu!*



# %50

**erainoko  
deskontua**

**eguzkitako  
betaurrekoetan**

*Eta Inauterietarako betaurrekoak 6€*

**MULTIOPTICAS**

Ibargarai 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA



# 1 euskal selekzioaren ed-rom jokoa



**eskatu  
orain!**

**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**

Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partiduak,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n  
Txilenak, erregateak, jaurtiketak,  
sarrera ikusgarriak, golen  
ospakizunak...  
Giro-soinu aparta,  
Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen  
errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partiduak egunez, gaez,  
euriarekin...



**+ DOAN**  
euskal  
selekzioaren bufanda  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan  
bidaltze  
gasturik gabe

**35,95  
euro**

Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa  
**DOAN**